



Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

bdfa0089f2bbfa03ec2c62eb9f1dcb9ed852a17c57290e7961ed0acdcc8ff9c0

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

TOLOSAKO UDALBATZAK 2023KO IRAILAREN 28AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

2023.09.28

Tolosako Udaletxean, 2023ko irailaren hogeita zortzian, 18.30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Angel Martinez de Rituerto Arregui izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Angel Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)

Bertaratutako zinegotziak:

Estitxu Kortejarena Ugarte(EH BILDU)

Goiuri Ezeiza Arandia(EH BILDU)

Ander Figuerido Zubiria(EH BILDU)

Josune Sanz Vidal(EH BILDU)

Aitor Agirresarobe Murgi(EH BILDU)

Kristina Pelaez Errazkin(EH BILDU)

Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)

Garbiñe Marzol Ormazabal(EH BILDU)

Xarles Iturbe Pasaban(EAJ-PNV)

Biotza Agirre Ugalde(EAJ-PNV)

Leire Zubeldia Ugalde(EAJ-PNV)

Xabier Balerdi Tolosa(EAJ-PNV)

Ainhoa Dominguez Landa(EAJ-PNV)

Patxi Amantegi Zubiria(EAJ-PNV)

Iker Uson Gonzalez(EAJ-PNV)

Jose M^a Villanueva Telleria(PSE-EE)

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzaile akzidentala:

Paulino Alonso Eraso

Eguneko gai-zerrenda

1. Akta hauek onartzea:
 - 2023ko ekainaren 17ko Udalbatza berria eratzeko bilkura berezikoa.
 - 2023ko ekainaren 22ko ezohiko Osoko Bilkurakoa.
 - 2023ko uztailaren 6ko ezohiko Osoko Bilkurakoa.
 - 2023ko uztailaren 27ko ohiko Osoko Bilkurakoa.
2. Onartzea Tolosako Udaleko Kontratazio Mahai Iraunkorra eratzea.



3. Hasierako onarpena ematea Euskal Herria plazako 1eko eraikinaren zuzeneko administrazio-emakidarako espedienteari.
4. Hasierako onarpena ematea 2023ko dirulaguntzen eranskina aldatzeko proposamenari: 5-2023.
5. Onartzea Tolosako Udalaren 2023-2025 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzeko proposamena.
6. Onartzea itxitako ekitaldiko fakturak.
7. Onartzea Euskaltegiko prezio publikoaren aplikazio-arauaren aldaketa.
8. Hasierako onarpena ematea 12/2023 Kreditu aldaketarako espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatean.
9. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzarako Tolosako Udaleko ordezkari titularra eta ordezkoa izendatzea.
10. Berdintasun Kontseilurako udal-talde politikoen ordezkariak eta haien ordezkoak izendatzea.
11. ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen Erabilera eta Funtzionamendua Arautzeko Udal Erregelamenduari aurkeztutako alegazioak ebaztea, eta Erregelamendua behin betiko onartzea.
12. Hasierako onarpena ematea Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak kudeatutako hezkuntza programen konturako zenbait dirulaguntza arautzen dituen ordenantzaren aldaketari.
13. 10/2023 kreditu aldaketarako espedientearen berri ematea, kreditu gehigarrien modalitatean.
14. 11/2023 kreditu aldaketarako espedientearen berri ematea, kreditu gehigarrien modalitatean.
15. Zazpiturri S.A. sozietateko ordezkariaren izendapenaren berri ematea.
16. Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. AKTA HAUEK ONARTZEA:

2023KO EKAINAREN 17KO UDALBATZA BERRIA ERATZEKO BILKURA BEREZIKOA.

Izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2023KO EKAINAREN 22KO EZOHICO OSOKO BILKURAKOA.

Izenburuan aipatutako akta aztertu ondoren, Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

ESKUB85a9801-3F72-4d8b-bfa3-b9ffb37bcc00



Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Aitor Agirresarobe Murgi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Xabier Balerdi Tolosa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Abstentzioak: Josune Sanz Vidal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Ainhoa Dominguez Landa, Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz onartu du izenburuan aipatutako akta.

2023KO UZTAILAREN 6KO EZOHIKO OSOKO BILKURAKOA.

Izenburuan aipatutako akta aztertu ondoren, Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Xabier Balerdi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Abstentzioak: Estitxu Kortejarena Ugarte.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz onartu du izenburuan aipatutako akta.

2023KO UZTAILAREN 27KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.

Izenburuan aipatutako akta aztertu ondoren, Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Xabier Balerdi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa eta Iker Uson Gonzalez.

Abstentzioak: Patxi Amantegi Zubiria eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz onartu du izenburuan aipatutako akta.



2. ONARTZEA TOLOSAKO UDALEKO KONTRATAZIO MAHAI IRAUNKORRA ERATZEA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2023ko uztailaren 20ko irizpena

9/2017 Legeak, azaroaren 8ak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, Kontratazio mahaiak xedatzen ditu, kontratazio organoen laguntzaile gisa, hainbat jardunbideetan. Era honetan, aipaturiko Legearen 320. artikulua ondoko hau xedatzen du: *Kontratatzeko eskumena kontratazio-batzorde batena denean izan ezik, administrazio publikoen kontratazio-organoek kontratazio-mahai baten laguntza izango dute prozedura irekian, prozedura ireki sinplifikatua, prozedura murriztuetan, lehia-elkarrizketan, lizitazio-prozedura negoziatua eta berrikuntzarako elkartzeko prozeduraren kasuan. Lizitazioaren berri iragarki bidez eman beharrik ez dagoen prozedura negoziatuetan, kontratazio-mahaia eratu edo ez aukeratu izango du kontratazio-organoak, salbu eta 168. artikuluan b) letraren 1.a puntuan aurreikusitako urgentzia larrian oinarritzen denean, orduan nahitaezkoa izango baita mahaia eratzea. 159.6 artikuluan aipatzen diren prozeduretan ere, aukerakoa izango da mahaia eratzea..*

Tokiko erakundeen kasuan, kontratazio mahaien araubidea 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian arautzen da, ondoko ezaugarri nagusiekin:

- Kontratazio-mahaiko buru korporazioko kide bat edo funtzionario bat izango da
- Mahaikide izango dira, kasu guztietan, korporazioko idazkaria edo, hala behar duenean, korporazioari aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna duen organoaren titularra, eta kontu-hartzailea, edo ekonomia eta aurrekontua kontrolatzeko eginkizuna duen organoaren titularra.
- Gainontzeko kideak kontratazio-organoak aukeratuko ditu, funtzionarioen, lan-kontratuko langileen edo zinegotzien artean.
- Kontratazio-mahaiak, gutxienez hiru kide osatu behar dute. Kontratazio-mahaiko kide diren hautetsiak ezingo dira izan mahaiko kide guztien herenak baino gehiago
- Idazkaria korporazioko funtzionario bat izango da.
- Behin-behineko langileek ezingo dute, ez mahaia osatu, ezta eskaintzak baloratzeko txostenak egin. Bitarteko funtzionarioek mahaiaren parte hartu ahalko dute soilik behar bezalako gaikuntza duen karrerako funtzionariorik ez dagoenean eta espedientean horixe egiaztatzen denean
- **Mahaiaren osaketa Kontratugilearen Profilean argitaratu behar da.** Halaber, Kontratazio-Mahai Iraunkor bat eratu ahal izango da.



Kontratazio-mahaiak, laguntza tekniko espezializatuko organo gisa, honako eginkizun hauek beteko ditu, beste batzuen artean:

- a) 9/2017 Legearen 140 eta 141. artikuluek aipatzen diren aldez aurretiko baldintzak betetzeari buruzko egiaztagiriak kalifikatzea eta, kasua bada, betetze hori egiaztatzen ez duten hautagai edo lizitatzailleak kanporatzea erabakitzea, zuzentzeko izapidea egin ondoren.
- b) Lizitatzailleen proposamenak baloratzea.
- c) Kasua bada, nabarmenki baxuegiztat jotako eskaintza baten kalifikazioari buruzko proposamena egitea, 9/2017 Legearen 149. artikulua aipatzen duen prozedura izapidetu ondoren.
- d) Kontratua eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzailleari adjudikatzearen aldeko proposamena egitea kontratazio-organoiari, Legearen 145. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitazioa gidatzen duten administrazio-klausula partikularren agiriari jarraituz.
- e) Prozedura murriztuan, lehia-elkarrizketan, lizitazio-prozedura negoziatuan eta berrikuntzarako elkartzeko prozeduran, hautagaiak aukeratzea, kontratazio-organoko eginkizun hori eskuordetuz gero; administrazio-klausula partikularren agirian jaso beharko da hori.

Bestaldetik, Kontratazio Mahaiak izango dituzte Autonomia Erkidegoetako legeek eta sektore publikoko kontratazioa arautzen duten araudiek ematen dizkien bestelako ahalmenak.

Horretaz gain, Kontratazio Mahaiaren araubide eta funtzionamendua ondoko legeriak arautzen du:

- 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen duenak, aplikagarri zaizkion gainontzeko xedapenetan.
- 817/2009 Errege Dekretuak, 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duenak.
- 1098/2001 Errege Dekretuak, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra garatzen duenak.

9/2017 Legea indarrean sartu ondoren, ezinbestekoa da baliabide elektronikoak erabiltzea kontratazio publikoan. Gure kasuan, baliabide horiek Eusko Jaurlaritzako Kontratazio Publikoko Plataforman kokatuta daude, eta aipaturiko euskarrian xedaturiko prozedura jarraitu behar da lizitazio elektronikoak gauzatzeko. Prozeduraren konplexutasunak aholkatzen du, alde batetik, Kontratazio Mahai bakarra eta iraunkorra izatea, eta bestetik, kideen kopurua handia ez izatea. Horretaz gain, kontratu bakoitzarekin lotura edo zeresanik duen arloko pertsonalak parte hartuko du aholkulari gisa, eskaintzak baloratzeko garaian.



Halaber, Tolosako udalaren kasuan, Kontratazio Teknikariari dagozkion funtzioak betetzen dituen langilea, bitarteko funtzionarioa da, Administrazio Orokorreko Teknikaria. Udal plantila aztertu ondoren, ez dago beste pertsonal aditurik kontratazio publikoaren arloan. Arrazoi hauek kontuan hartuta, mahaikide gisa izendatzea proposatzen da.

9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen duenak, bere 326.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, Kontratazioko Mahaikideak dagokion eskumeneko kontratazio-organoak izendatuko ditu.

Aipaturiko Legeak, bere 2. Xedapen gehigarrian, Plenoko eskumeneko kontratazioak xedatzen ditu, ondokoaren arabera:

- Administrazio-kontratuak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa bada, edo sei milioi euroko kopurua gainditzen badute; urte anitzeko kontratuen kasuan, haien iraupena lau urtekoa baino luzeagoa bada, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa bada, edo sei milioi euro baino gehiago ere.
- Kontratu pribatuak, toki-entitateen ondasunen gaineko emakidak eta ondareari buruzko legearen mendeko ondasun higiezinak eta eskubideak eskuratzea: aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, edo hiru milioi euro baino gehiago bada; ondarea besterentzea ere plenoaren eskumena izango da, balioa ehuneko edo zenbateko hori baino handiagoa bada.

Beraz, proposamen honek eragiten ditu Tolosako Udalbatza Plenoko eskumeneko kontratazio-jardunbideak.

Hori horrela, Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrek irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du 2023ko irailaren 20an izandako ohiko bilkuran.

Bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Kristina Pelaez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Hau da, Irizpenaren proposamena gehiengoz onartu da.

Beraz, honako irizpena onartzea proposatzen zaio Tolosako Udalbatzari:



IRIZPENA

LEHENA.- Tolosako udaleko Kontratazio Mahai Iraunkorra eratzea, udalbatza plenoak sustatuko dituen kontratazio-jardunbide guztietan laguntza emateko organo gisa.

BIGARRENA.- Kontratazio Mahai Iraunkorra osatuko duten honako mahaikide hauek izendatzea::

- Lehendakaria: Kristina Pelaez Errazkin. Ordezkoa:Aitor Agirresarobe Murgi.
- 1. Bokala: Ander Figuerido Zubiria. Ordezkoa: Goiuri Ezeiza Arandia.
- 2. Bokala: Udal Idazkaria, edo haren ordezkoa.
- 3. Bokala: Udal Kontu-hartzailea, edo haren ordezkoa.
- 4. Bokala: Kontratazioko Teknikaria, edo haren ordezkoa.
- 5. Bokala: Kontratazioak eragiten duen udal saileko arduraduna, edo haren ordezkoa.
- Idazkaria (botorik gabe): Kontratazioko administraria, edo haren ordezkoa.

HIRUGARRENA. Kontratazioko Mahai Iraunkorreko kideen ordezkapena ondoko kasuetan emango da: karguak hutsik daudenean, bertaratu ezinean, gaixotasunean, edo, orokorrean, halabeharrezko kasuetan.

LAUGARRENA.- Lehendakariak eskatuta eta mahaikideek aurretik adostuz gero, Kontratazio Mahai Iraunkorraren bileretan parte ahal izango dute aztertu beharreko gaietan adituak diren udal langileek, edota mahaia izendaturiko aholkulari adituek. Pertsona hauek hitza izango dute baino ez dute boto eskubiderik izango.

BOSTGARRENA.- Mahaiaren bilkuretan ondoko araubide juridikoa izango da aplikagarria:

- 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen duena, aplikagarri zaizkion gainontzeko xedapenetan.
- 817/2009 Errege Dekretua, 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duena.
- 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra garatzen duena.
- 40/2015 Legean xedaturikoa organo kolegiatuentzako, nauetan arautzen ez diren gaietan



SEIGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Euskadiko Kontratatzailearen Profilean eta Tolosako udaleko web orrian argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Xabier Balerdi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Tolosako Udaleko Kontratazio Mahai Iraunkorra eratzea.

3. HASIERAKO ONARPENA EMATEA EUSKAL HERRIA PLAZAKO 1EKO ERAIKINAREN ZUZENEKO ADMINISTRAZIO-EMAKIDARAKO ESPEDIENTEARI.
Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2023ko irailaren 20ko irizpena

AURREKARIAK:

1) 2023ko uztailaren 28an, Tolosako Ekinbide Elkarteak, 10363 sarrera zenbakiarekin, eskaera egin du Tolosako udalaren jabetzakoa den Euskal Herria Plaza 1.zenbakiko eraikinaren emakida eskatuz, Tolosako ekinbide etxearen zerbitzuak bertan emateko .Horretarako, memoria aurkeztu du.

Memoria horretan ondorengo informazioa ematen du:

- Zein diren CIT-TEE elkartearen jarduera nagusiak
- Zein diren bere jardueraren interes publikoa defendatzeko arrazoiak
- Zein izan daitekeen emakida honen esleipen zuzena arrazoituko lukeen lege-oinarria.

2023ko abuztuaren 4an, Kultura, Festak, eta Gazteriako Zerbitzuburuak txostena egin du. Bertan, proposatzen den emakidaren justifikazioarako azalpena egin du. Konzesio horren beharra justifikatzeko argudioak ondorengoak izan dira:

«Tolosaren herri kultural izaeraren garapenean, eta gizartearen ordezkari diren eragileen artean, CIT-TEE da garrantzitsuena, bere historiari esker, gizartean duen sustraitze



mailari esker, bai eta berak antolatutako jarduerak Tolosan bertan nahiz mundu zabalean duten proiektioagatik. Historiari dagokionez, elkarte honek 56 urte bete ditu pasa den 2023. urtean, eta beste asko beteko dituela pentsatzeko arrazoiak baditugu, elkartearen egiturak duen sendotasuna eta antolatzen dituen jardueren kalitate eta interesaren maila eta egonkortasuna kontuan hartzen baditugu CIT-TEE elkarteak antolatzen ditu urteroko Nazioarteko Abesbatzen Jaialdia, Txotxongiloen Titirijai izeneko nazioarteko topaketa, Ama-Lur jardunaldiak, etnografiarekin eta antropologiarekin lotura duten gaiak goimailako gonbidatuekin osatuak, eta urte osoan zabalik dagoen TOPIC izeneko Txotxongiloen Nazioarteko Zentroa kudeatzen du, museoa, dokumentazio zentroa, produkzio-gunea, antzokia, erakusketa aretoa eta formazio-guneak barnean dituela.

Eskaintza honen interesaren adierazgarri dira urtero TOPIC-el jasotzen duen 15.000tik gorako bisitari kopurua, zentroari bisita egiten dioten ikastetxe ugariak, Leidor aretoa betetzen duten musika koral zaleak, eta Ama Lur jardunaldietan aretoa egunero betetzen duten ikusleak. CIT-TEE elkarteak sortzen duen jarduera kulturala ekonomia eragilea ere bada, Tolosan urtean 1.000.000 eurotik gorako gastua egiten delarik, zerbitzu, inbertsio nahiz bestelako horniduretan. Tolosako udalak gastu horiei aurre egiteko urtean 100.000 inguruko diru-laguntza ematen dio elkarte honi, gastuen %10era iristen ez den kopurua. Beste guztia bestelako erakunde publiko nahiz pribatuetatik, edo zerbitzuak sortutako baliabideei esker finantziazten da, Gastu honen zati bat bertako pertsonalaren kontratazioetan joaten da, 2023an 17 lagunekoko plantila mantentzen delarik.

Lehenago esan bezala, TOPIC-en ematen diren zerbitzuen artean 250 lagunentzako prestatutako antzokia dago. Areto hau teknologia berriekin prestatuta dago antzezlan, kontzertu, proiektio eta lan jardunaldietarako. Honi esker lortu da Tolosan Leidorren osagarri perfektua den gune eszenikoa, urtean ia 200 eguneko okupazio aizatera iristen dena. Arrazoi hauek guztiak kontutan hartuta, sustatu zuen Tolosako udalak garai batean erorita eta aprobeitxamendu pribaturik ez zeukan orube eta eraikin bat birreraiki eta urte

asko lehenago garatzen ari zen jarduera batekin edukiz betetzeko asmoa, CIT-TEE elkartearenekin alegia. Asmo hau gauzatzeko borondateak ekarri zituen aktuzio administratibo garrantzitsu batzuk:

a) 2007garren urtean Lankidetzaren Hitzarmen Markoa sinatu zuten Tolosako alkateak eta CIT-TEE elkarteak etorkizunean, eraikinaren birgaitze lanak bukatzean, elkarrekin lan egiteko moduari buruzko zehaztasunak ematen zituena.

b) 2011ko maiatzaren 5ean onartu zuen Tolosako udaleko Ohiko Osoko Bilkurak "TOPIC dagoen eraikinaren erabilera pribatiborako demaniozko kontzesioespedientea" Espedientea osatzen zuen dokumentuetako bat zen "Klausula Administratibo eta partikularren agiria, Euskal Herria Plazako 1 zenbakidun eraikinaren,



TOPIC Nazioarteko Txotxongilo Zentroaren, eta bere instalazio eta ekipamenduaren erabilera pribatiboaren zuzeneko adjudikazio bidezko kontzesioa arautzen duena”.

2011ko ekainaren 9n lankidetza hitzarmena sinatu zuten orduko Tolosako Udalak eta orduko CIT-TEEko lehendakariak.

Dokumentu honek biltzen zituen bi erakundeen arteko harremanak nolakoak izango ziren elkarrearen jardueraren eta finantziazioari dagokionean.

2011garren urteko Osoko Bilkurak onartutako espedientek, ordea, ez zuen aurrera egin eta ez zen gauzatu handik aurrerako tramiterik, beraz, espediente itxi gabe gelditu zen Egoera honetaz jabetuta, espediente berri bat ireki zen 2021garren urtean, orduko erabakiaren iraungitzea onartzeko, eta prozedura berri bati ekin ahal izateko. Espediente hau tramitatu eta onartu zuen 2021eko irailaren hogeitahamarrean Osoko Bilkurak.

Honen ondoren, CIT-TEE elkarteak TOPIC izeneko eraikinaren demanio kontzesio garatzeko bidean, Tolosako udalari Euskal Herria plazako 1. zenbakiko eraikina dohainik uzteko eskaera egin dio erregistro elektronikoaren bidez uztailaren 27an.

Udalbatzak 2022ko uztailaren 27an CIT_TEE elkartearen eskaerari erantzunez, kontzesioa adjudikazio zuzenaren bidez egitea eta honetarako baldintza administratibo partikularraren plegua ere onartu zuen.

Udalbatzak 2023ko maiatzaren 25ean erabaki zuen Tolosako Ekinbide Etxe, Asociación “Centro de Iniciativas Turísticas” Elkarteak Euskal Herria Plazako 1ean kokatuako eraikina zuzeneko emakida prozeduran atzera egin duela deklaratzeko eta Euskal Herria Plazako 1ean kokatutako eraikina zuzeneko emakidan Tolsoako Turismo Ekimeneko Zentroari esleitzeko prozedura amaitutzak ematea, aurkeztu beharreko bermearen agiria aurkeztu ez zuelako.»

Bukatzeko ondorengo proposamena helarazi du: Elkarte horren alde aipatuako eraikuntzaren emakida egitea , oraingo honetan emakidaren epea 5 urtekoa izanez.

TXOSTEN JURIDIKOA.

Aldez aurretik Tolosako Ekinbide Etxearen izaera eta helburuak aztertuko dira:

Tolosako Ekinbide Etxearen izaera eta helburuak:

Tolosako Ekinbide Etxearen Estatutoak honela diote:

1.artikuluak honela dio:”La Asociación sin ánimo de lucro, Centro de Iniciativas Turísticas de Tolosa, n.º de registro RPG 359, constituida con fecha de 3 de abril de 1967, e inscrita con fecha 8 de abril de 1967, se rige por lo dispuesto en la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de Asociación, por la Ley



7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi, por sus desarrollos reglamentarios, por los presentes Estatutos en cuanto no estén en contradicción con las citadas disposiciones generales y por los acuerdos válidamente adoptados por sus órganos siempre que no sean contrarios a la ley o a los presentes Estatutos”.

2.artikuluak honela dio: “Los fines de esta Asociación son:

«-Planificar y coordinar toda clase de actividades turísticas de promoción de la villa de Tolosa.

-Fomentar las visitas a Museos, Galerías de Arte, Pinacotecas, Monumentos, Lugares históricos , jardines botánicos , excursiones dirigidas por la villa y su entorno a fin de conocer tanto las bellezas naturales como los lugares históricos, empleando a tal fin medios divulgativos, como conferencias, seminarios , publicaciones y en definitiva, la propagación de todo cuanto concierne a la historia, costumbres y tradiciones, bellezas naturales y medio ambiente, en general.

Fomentar todo tipo de actividades educativas, de carácter social o soci-sanitario, de voluntariado, de cooperación al desarrollo, de ocio y tiempo libre, culturales, así como de protección al medio ambiente que incluso superen el ámbito de carácter nacional e internacional, bien en locales propios o ajenos cedidos al efecto..

-Para la consecución de los fines anteriores , se organizarán exposiciones, festivales, certámenes , conferencias y publicaciones.

-El CIT de Tolosa mantendrá una estrecha colaboración con todas las Instituciones de carácter local, nacional e internacional que colaboren en la realización de sus actividades.

-Cualquier otra actividad no reseñada anteriormente pero que se encuadre dentro de los Estatutos de la FECIT, y en particular, promover el estudio, conocimiento, divulgación, enseñanza y aplicación de todo proceso técnico, económico, social, cultural, ecológico, etc, que contribuya al armónico desarrollo del turismo.»

OINARRI JURIDIKOAK:

LEHENA. Toki-entitateetako ondasunak bitan banatzen dira: jabari publikoko ondasunak eta ondare-ondasunak edo propioak. Jabari publikoko ondasunak erabiltzerakoan, erabilera pribatibotzat hartuko da jabari publikoko zati bat okupatzea, baina gainerako interesatuen erabilera mugatzen duela edo kanpo uzten duela.

Kontzesio edo emakida administratiboaren bidez egingo da jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboa.



Kasu honetan, Tolosako Ekinbide Etxearen esku utzi nahi den eraikuntzak ondorengo deskripzioa du udal inbentarioan:

Nombre de la finca: Plaza Euskal Herria 1

Naturaleza del inmueble:urbana

Linderos: Norte: Con callejón trasero, Sur: Plaza Euskal Herria, Este: Agintari Kalea, Oeste: Nagusi Kalea.

Naturaleza del dominio:Servicio Público.

Signatura del Registro: Inscrito por el 206 L.H., tomo 1709, Libro 265, Folio 186, Finca:12.966.

Destino: Equipamiento cultural

Fecha de inscripción :16-10-1994

Nº de inventario:1.1.000011

Tolosako Ekinbide Etxeari Euskal Herri Plaza 1.zenbakiko eraikina lagatzeko era konzesioa da.

BIGARRENA. Aplika daitekeen legeria:

— 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, toki erakundeen ondasunen erregelamendua onartzen duena; 74. eta 75. artikulua eta 78.etik 91.era bitartekoak.

— 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa; 93 eta 137.4 artikulua.

— 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (SPKL), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora; 9. artikulua eta 115.etik 155.era bitartekoak, eta Bigarren, Hirugarren eta Hamabosgarren Xedapen Gehigarriak.

HIRUGARRENA. 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak (SPKL), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora, bere 9. artikuluan xedatzen duenaren arabera, **Lege honetatik kanpo gelditzen dira** ondasun higiezin, balore negoziagarrien eta ondasun gorpuzgabeen gainean egindako salerosketa-, dohaintza-, truke- eta errentamendu-kontratuak eta gainerako antzeko negozio juridikoak (ordenagailu-programei buruzkoak salbu; kasu horretan, hornidura- edo zerbitzu-kontratutzat joko dira eta). Aipatutako horiek guztiek kontratu pribatuen izaera izango dute, eta ondare-legeriaren pean egongo dira.



Ondare-legeria hori ondare-legeria estatala da, zehazki esanda, 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, toki erakundeen ondasunen erregelamendua onartzen duena.

33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, bere 110.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ondare-ondasun eta ondare-eskubideen gaineko kontratu, hitzarmen eta gainerako negozio juridikoak, beren prestaketa eta esleipenari dagokionez, lege honek eta hura garatzeko xedapenek arautuko dituzte, eta arau horietan aurreikusten ez dena Administrazio Publikoetako kontratuei buruzko legeriak arautuko du. Haien eraginak eta azkentzeak lege honek eta zuzenbide pribatuko arauak arautuko dituzte.

Era berean, 1372/1986 Errege Dekretuak, ekainaren 13koak, toki erakundeen ondasunen erregelamendua onartzen duenak, bere 98.2 artikulua xedatutakoaren arabera, kontzesioak emango dira aurrez lizitazioa eginda eta Administrazio Publikoetako kontratuen legearekin bat etorrita.

Hari beretik, 33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, bere 93.1 artikuluan dio (oinarrizkoa, Azken Xedapenetako Bigarrenean ezarritakoaren arabera) jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak norgehiagokaraubidean egin behar direla.

LAUGARRENA. Jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak norgehiagokaraubidean egin behar dira. **Halere, zuzenean eman ahal izango dira 33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, bere 137.4 artikuluan jasotako supostu edo kasuetan, ohiz kanpoko inguruabarrak badira tartean, behar bezala justifikatuta, edo legeetan ezarritako beste kasu batzuetan.**

33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, bere 137.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, esleipen zuzena egin ahal izango da ondorengo kasuetan:

a— Eskuratzailerak beste administrazio publiko bat denean edo, orokorrean, sektore publikoko zuzenbide publiko edo pribatuko edozein pertsona juridiko. Horren ondorioetarako, sektore publikoko zuzenbide pribatuko pertsona juridikoa honako hau izango da: merkataritza-sozietate bat, baldin eta kapitalaren gehiengoa badu, zuzenean edo zeharka, administrazio publiko batena edo batzuen edo zuzenbide publikoko pertsona juridiko batena edo batzuen.

b— Eskuratzailerak irabazteko asmorik ez duen entitate bat denean, onura publikokotzat joa, edo legez aitortutako eliza, konfesio edo komunitate erlijioso bat.



c— Higiezina beharrezkoa denean zerbitzu publikoko zeregin bat betetzeko edo interes orokorreko helburu bat gauzatzeko, baina aurreko bi paragrafoetan aurreikusita ez dagoen pertsona batek egina.

d— Besterentzeko sustatutako lehiaketa edo enkantea huts deklaritzen denean, edo haiek huts egiten badute esleipendunak bere betebeharrak bete ez dituelako, beti ere urtebete igaro ez bada haiek egin zirenetik. Kasu honetan, besterentzeko baldintzak ezin dira izan aurrez iragarritakoak baino kaskarragoak izan edo esleipena eman zeneko baldintzak baino kaskarragoak izan.

e— Orubean ezin eraiki denean, formagatik edo tamaina txikiagatik, eta salmenta jabe mugakide bati egiten zaionean.

f— Ekonomikoki ustiatzeko adinako azalerarik ez duen landa-finka denean, edo bertan bere izaerarekin bat datorren erabilera bat gauzatu ezin denean, eta salmenta jabe mugakide bati egiten zaionean.

g— Ondasunaren edo eskubidearen titulartasuna bi jaberena edo gehiagorena denean eta salmenta jabekide baten edo gehiagoren alde egiten denean.

h— Salmenta egiten denean lege-xedapenez aitortutako lehentasunezko eroste-eskubidea duenaren alde.

i— Ez ohiko arrazoiak tarteko komenigarritzat jotzen denean salmenta higiezina okupatzen ari denaren alde egitea.

Kasu honetan, zuzeneko emakida,puntu honetan dago justifikatuta: Administrazio Publikoaren ondarea xedatzen duen 33/2003 Legea, 137.4.b) artikuluan, hain zuzen:Ondoko kasuetan zuzeneko esleipeana ahal izango da:

“Eskuratzailera irabazteko asmorik ez duen entitate bat denean, onura publikokotzat joa, edo legez aitortutako eliza, konfesio edo komunitate erlijioso bat.”

2022ko urtarrilaren 25ean, Eusko Jaurlaritzak, 1994ko irailaren 6an, "Centro de Iniciativas Turísticas" izeneko elkartearen onura publikokotzat jotzeko ziurtagiria aurkeztu zuen.

BOSGARRENA. Emakidak ezin dira epe-mugarik gabe eman, 33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoaren Ondareari buruzkoak, bere 93.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kasu honetan bost urterako izatea proposatu du Kultur Teknikariak.

SEIGARRENA. Erabilera pribatuko emakidak edo jabetze publikoaren aprobetxamendu berezikoak doan izan daitezke; kontraprestazio edo baldintza batekin eman daitezke; tasa bat ordaindu beharra izan dezakete erabilera pribatiboagatik edo jabetza publiko estataleko ondasunen aprobetxamendu bereziagatik —zeina arautzen



duen 25/1998 Legeak, uztailearen 13koak, Estatuaren eta Toki Erakundeen Tasen Lege Araubidea aldatu eta Ondare Prestazio Publikoak berrantolatzen dituenak, bere I Tituluko VIII Kapitulu—; edo araudi berezietan ezarritako tasak ordaindu beharra izan dezakete,

Erabilera pribatiboak edo jabetza publikoko ondasunen aprobetxamendu bereziak ez du tasarik ordaindu beharko, baldin eta esleipendunarentzat onura ekonomikorik ez badakar; edo, onurarik badakar ere, erabilerak edo aprobetxamenduak dituen baldintzek edo kontraprestazioek onura hori baliogabetzen edo hutsal uzten badute.

ZAZPIGARRENA. Komenigarritzat jo daitezkeen beste alderdi batzuk gehitzeko aukeraren kaltetan izan gabe, kontzesioa emateko erabiltzen diren klausulek ondorengo alderdi hauei erreferentzia egin beharko diete:

- a) Emakidaren helburua eta mugak.
- b) Obrak eta instalazioak, interesdunak egin beharrekoak, hala dagokionean.
- c) Erabilera-epea, luzaezina, araudi berezian ezarritakoaren kaltetan izan gabe.
- d) Esleipendunaren betebeharrak eta eskumenak Korporazioarekin duen harremanean, eta Korporazioak hartzen dituenak.
- e) Baldin eta erabileraren bidez publikoari zerbitzu pribaturik eman behar bazaio, hartarako ezarri diren tarifak, hala badagokio behintzat, eta tarifa horiek adierazi behar dira haiek osatzen dituzten faktoreak xehatuta dituztela, ondorengo berrikuspenen oinarri gisa.
- f) Baldin eta dirulaguntzarik ematen bada, zer dirulaguntza mota den, zenbatekoa, epeak eta interesdunari emateko modua.
- g) Udalari ordaindu behar zaion kanona.
- h) Erabilitako jabetza-zatia egoera onean edukitzeko betebeharra, eta, hala dagokionean, zer obra egin dituen.
- i) Obrak eta instalazioak itzuli behar diren edo ez epea bukatutakoan.
- j) Korporazioak eskumena duela esleipena ondorioz gabe uzteko epea bukatu baino lehen, baldin eta hura justifikatzen badute gertatu diren interes publikoko inguruabarrek, eta jarri beharko da sortutako kalteak ordaintzeko beharrik badagoen edo ez.
- k) Kontzesioa ematen dela jabetza eskubiderik gabe eta hirugarrenei kalterik egin gabe.
- l) Zer zigor ezartzen diren interesdunak, bere betebeharrak direla-eta, egindako arau-hauste arin, larri edo oso larriengatik.
- m) Emakidadunaren betebeharra erabilitako ondasunak uzteko eta libre uzteko, udal entitatearen esku, ezarritako epean, eta aitortzea udal entitateak ahalmena duela, berez, botatzea edo kaleratzea ebazteko eta exekutatzeko.



ZORTZIGARRENA. Prozedura honi jarraitu beharko zaio:

A. Aurrena ondorengo guztia justifikatu behar da: **Udalaren beharra edo komenientzia** ondasunaren emakida egiteko; bere helburua edo helburuak; eta zer esleipen-prozedura jarraituko den. Ondoren, udal zerbitzu teknikoek txostena egingo dute, zeina oinarri izango den jabetza publikoko ondasunaren erabilera pribatuaren emakida administratiboa egiteko, barne izango duelarik merkatuan gutxi gorabehera duen prezioaren **balorazioa**.

B. Emakida ebazteko eskumena duen organoak hasiera emango dio espedienteari eta aginduko du idatz dezatela esleipena arautuko duen **administrazio-baldintza partikularren plegua**.

C. Emakidaren oinarri izan behar duen **proiektuak eta lizitazio-oinarriak jendaurrean jarri behar dira** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia jarrita, 30 egunez gutxienez, eta epe horretan erreklamazioak eta alegazioak aurkez daitezke.

Era berean, interesdunen eskura egongo da iragarki-taulan eta Udalaren egoitza elektronikoan.

D. Jendaurreko tramiteak zer eman duen ikusita, kontratazio-organoak ebazpen arrazoitua emango du, espedientea onartuko du eta esleipen-prozedura irekiko du.

E. Esleipena zuzenean egingo da; hortaz, erabilera pribatiboaren administrazio-emakida eskainiko zaio hartan interesa duen pertsonari edo enpresari.

Gonbidapenean honako hau jarri behar da: **eskaintza jasotzeko muga-eguna**; zer helbidetara bidali behar den; zer hizkuntzatan idatzi behar den; zer agiri osagarri erantsi behar zaizkion, hala badagokio behintzat; eta zer lekutan, egunetan eta ordutan irekiko den proposamena.

F. Organoak, hala dagokionean, hartarako izendatzen den batzorde negoziatzailearen bidez (kontratazio-organoaren menpeko teknikoek osatua) **eskaintza** baloratu eta **negoziatuko du**, eta **lizitatzailerari eskatuko dio** aurkez dezala, batetik, administrazio-baldintza partikularren pleguan aurretiaz ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa, eta, bestetik, eratu dezala behin betiko bermea, hain zuzen ere, okupatutako jabetza publikoak duen balioaren % 3ko bermea.

Horretarako, **hamabost egun balioduneko epea izango du**, eskaera jaso eta



hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

G. Hitzarmena formalizatu behar da dokumentu administratibo batean, zeinak zehatz-mehatz bat etorri behar duen lizitazio-baldintzekin, eta dokumentu hori titulu nahikoa da edozein erregistro publikotara jotzeko. Nolanahi ere, kontratistak eskatu ahal izango du kontratua eskritura publikoan jasotzea, eta bere kontura izango dira horren gastuak.

Organo Eskuduna Udal Batza:

Sektore Publikoko kontratuak arautzen dituen azaroaren 8ko 9/2017ko Bigarren Xedapen Gehigarriko 9. eta 10. puntuek ezarritakoarekin bat. Honela dio artikulua horrek: "Toki Entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango da haietan kontratu pribatuak egitea, bai eta toki entitateen ondasunen gaineko emakidak adjudikatzea eta ondareari buruzko legearen mendeko ondasun higiezinak eta eskubideak eskurtzea ere, baldin eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua ez bada, 100.1 artikuluan zehaztutako baldintzekin bat, aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa eta hiru milioiko euro baino gehiago; ondarea besterentzea ete beren eskumena izango da, balioa ez bada ehuneko edo zenbateko hori baino handiagoa.

Muga hori gainditzen bada Plenoarena izango da.

Kasu honetan, 2022ko maiatzaren 9an, Hirigintzako Departamentu-buruak txostena egin zuen. Bertan, Euskal Herri Plazako 1. zenbakiko eraikuntzaren balioa ondorengo dela informatu du: 4.736.632,49 euro.

Beraz, aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10a baino handiagoa izanik Plenoari dagokio bere onarpena.

Erabakia hartzeko ez da beharrezkoa gehiengo absolutoa, Toki Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 47.j artikulua eskatzen baitu gehiengo hori aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 20a baino handiagoa bada. Kasu honetan gehiengo sinplea nahiko da.

Hori horrela, Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du 2023ko irailaren 20an izandako ohiko bilkuran.

Bozketaren emaitza honako hau izan da:



Aldeko botoak: Kristina Pelaez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Hau da, Irizpenaren proposamena gehiengoz onartu da.

Beraz, honako irizpena onartzea proposatzen zaio Tolosako Udalbatzari:

IRIZPENA

LEHENA.- Justifikatutzat ematea Euskal Herria plazako 1 zenbakidun eraikinaren erabilera pribatiboa Tolosako Ekinbide Etxeari zuzenean emateko beharra eta komenigarritasuna.

BIGARRENA.- Onartzea espedientea, Euskal Herria plazako 1 zenbakidun eraikinaren eta bere instalazio eta ekipamenduaren erabilera pribatiboaren kontzesioa zuzeneko adjudikazio bidez egiteko.

HIRUGARRENA.- Onartzea klausula administratibo partikularren plegua, Euskal Herria plazako 1 zenbakidun eraikinaren eta bere instalazio eta ekipamenduaren erabilera pribatiboaren zuzeneko adjudikazioa arautzen duena. Akordio honi erantsita gelditzen dira.

LAUGARRENA.- Erabakia informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita. Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko webgunean, iragarki taulan eta Gardentasun Atarian argitaratuko da. Epe horretan espedientea eskuragarri egongo da Idazkaritzan.

BOSGARRENA.- Alegaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat jotzea, eta Tolosako Ekinbide Etxeari eskaintzea Euskal Herria plazako 1. zenbakidun eraikinaren erabilera pribatiboaren administrazio kontzesioa.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Xabier Balerdi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.



Beraz, Udalbatzak, aho batez, hasierako onarpena eman dio Euskal Herria plazako 1eko erankianren zuzeneko administrazio- emakidararako espedienteari.

4. HASIERAKO ONARPENA EMATEA 2023KO DIRULAGUNTZEN ERANSKINA ALDATZEKO PROPOSAMENARI: 5-2023.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrek, 2023ko uztailaren 20an, aho batez, hasierako onarpena eman zion 2023ko dirulaguntzen eranskinean honako aldaketa hauek txertatzeari :

Partida	Onuraduna	Helburua	Aldaketa	Mota
0700.422.10.414.00	Tolomendi	Auzo lana sustatzea	1.000 €	izenduna
0900.481.10.335.10	Uztaritzeko Louis Dassance Ikastola	Euskara sustatzeko	3.000 €	izenduna (*)
0900.481.13.335.10	TKT (Ataria)	Urteurrena	5.000 €	izenduna
0900.481.19.335.10	GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELK.	Ahokotasuna eta bertsolaritza	1.694 €	izenduna

(*) Kasu honetan, 2024 urteko hasierako aurrekontuan partida eta zenbateko hori bazeuden. Aldatzen dena onuraduna da.

Aldaketa horiei hasierako onarpena eman ondoren eranskina honela uztea erabaki zen:

Partida	Onuraduna	Helburua	Aldaketa	Mota
0700.422.10.414.00	Tolomendi	Funtzionamendu gastuak, larunbateko azoka + Auzo lana sustatzea	42.250 €	izenduna
0900.481.10.335.10	Uztaritzeko Louis Dassance Ikastola	Euskara sustatzeko	3.000 €	izenduna
0900.481.13.335.10	TKT (Ataria)	Ohiko jarduera + Urteurrena	100.190 €	izenduna
0900.481.19.335.10	GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELK.	Ahokotasuna eta bertsolaritza	31.326 €	izenduna

2023ko irailaren 28an, 2023-00000012088 sarrera erregistroaren bitartez, Udala osatzen duten hiru talde politikoek emendakina aurkeztu dute. Bertan aldaketa berri bat gehitzea proposatzen dute.



Partida	Onuraduna	Helburua	Aldaketa	Mota
0500.481.01.231.00	ABEGI	Bazterkeria egoeran dauden pertsonen gaueko arreta	37.400€	izenduna

Aipatutako proposamena gehitzea beharrezkoa da Tolosako Udalak ABEGI-rekin sinatuta duen dirulaguntzaren hitzarmenaren luzapena onartu ahal izateko.

Emendakina bozketara jarri da eta Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Xabier Balerdi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du aurkeztutako emendakina.

2023ko irailaren 20ko irizpenari onartutako zuzenketa txertatu zaio.

2023ko irailaren 20ko Antolakuntza Lan Esparruko Batzorde Iraunkorren irizpena zuzenduta

2023ko dirulaguntzen eranskinean honako aldaketa hauek sartzea proposatzen da:

Partida	Onuraduna	Helburua	Aldaketa	Mota
0700.422.10.414.00	Tolomendi	Auzo lana sustatzea	1.000 €	izenduna
0900.481.10.335.10	Uztaritzeko Louis Dassance Ikastola	Euskara sustatzeko	3.000 €	izenduna (*)
0900.481.13.335.10	TKT (Ataria)	Urteurrena	5.000 €	izenduna
0900.481.19.335.10	GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELK.	Ahokotasuna eta bertsolaritza	1.694 €	izenduna
0500.481.01.231.00	ABEGI	Bazterkeria egoeran dauden pertsonen gaueko arreta	37.400€	izenduna

(*) Kasu honetan, 2024 urteko hasierako aurrekontuan partida eta zenbateko hori bazeuden. Aldatzen dena onuraduna da.

Hau dela eta, hona hemen



PROPOSAMEN AKORDIOA:

LEHENENA.- Hasierako onarpena ematea dirulaguntzen eranskinetako aldaketa hauei eta, ondorioz, aldaketa horiek sartuta, eranskina honela uztea:

Partida	Onuraduna	Helburua	Aldaketa	Mota
0700.422.10.414.00	Tolomendi	Funtzionamendu gastuak, larunbateko azoka + Auzo lana sustatzea	42.250 €	izenduna
0900.481.10.335.10	Uztaritzeko Louis Dassance Ikastola	Euskara sustatzeko	3.000 €	izenduna
0900.481.13.335.10	TKT (Ataria)	Ohiko jarduera + Urteurrena	100.190 €	izenduna
0900.481.19.335.10	GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELK.	Ahozketasuna eta bertsolaritza	31.326 €	izenduna
0500.481.01.231.00	ABEGI	Bazterkeria egoeran dauden pertsonen gaueko arreta	132.400€	izenduna

BIGARRENA.- 2023ko dirulaguntzen eranskinetako aldaketak jendaurrean jartzea hamabost lanegunetz, Osoko Bilkuraren hasierako onarpenaren ondoren. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko dute.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Xabier Balerdi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, erabaki du hasierako onarpena ematea 2023ko dirulaguntzen eranskina aldatzeko proposamenari: 5-2023.



5. ONARTZEA TOLOSAKO UDALAREN 2023-2025 ALDIRAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2023ko irailaren 20ko irizpena

2023-2025 Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoko 5.1 lerroan zenbait aldaketa txertatzeko honako proposamena jaso da.

Honela dago gaur egun:

Dirulaguntza lerroa: 5.1.- Euskararen normalizazioa

Eskumen arloa	Euskara
Sektore hartzaileak	Ikastetxeak. Enpresak eta tokiko merkatariak
Helburuak	Enpresetan euskara planak sustatzea; kaleko errotuluak euskaratzea; euskarazko komunikabideak sustatzea; ikastetxeekin elkarlanean bertsozaletasuna landu eta etorkinei euskalduntze prozesuan laguntzea; euskara ikasteko laguntzak ematea; hainbat jarduera sustatzea.
Lortu nahi diren ondorioak	Euskaraz dakiten herritarren kopurua areagotzea eta arlo sozioekonomikoan eta geinerako eremuetan euskararen erabilera sustatzea.
Egikaritze epea	Zehaztu gabe.
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantziazioa funts propioekin egiten da.
Ekintza Plana	Udal aurrekontua onartu ondoren, deialdi publiko bat egingo da norgehiagoka bidezko dirulaguntzen kasuan, eta bi alderdiek hitzarmen bat sinatuko dute dirulaguntza izendunetan. Aurreikusten da dirulaguntzaren zati bat (%75) aurreratzea eta Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatzea laguntza.
Jarraipena eta ebaluazioa	-Errotulu kopurua. -Ikasleen eskaera kopurua. -Enpresen euskara planak. -Hedabideen erabiltzaileak. -Elkarleen memoriak.

ESKUB85a9801-3F72-4d8b-bfa3-b9ffb37bcc00



PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
0900.481.10.335.10	HERRI URRATS, NAFARROA OINEZ, KILOMETROAK	Euskara sustatzeko	3.000 €	Izenduna	9.000 €
0900.481.12.335.10	GALTZAUNDI	Normalizazioa	66.365 €	Izenduna	199.095 €
0900.481.01.335.10	ENPRESAK	Erabilera lan munduan	9.000 €	Norgehiagoka	27.000 €
0900.481.13.335.10	TKT (Ataria)	Euskarazko hedabideak, ohiko jarduera	95.190 €	Izenduna	285.570 €
0900.481.14.335.10	TK (28 kanala)	Euskarazko hedabideak, ohiko jarduera	39.692 €	Izenduna	119.076 €
0900.481.15.335.10	KONTSEILUA	Ohiko jarduera	5.000 €	Izenduna	15.000 €
0900.481.16.335.10	HERRIKIDE IKASTETX	Etorkinen euskalduntzea	7.917 €	Izenduna	23.751 €
0900.481.17.335.10	LASKORAIN IKASTOLA	Etorkinen euskalduntzea	7.917 €	Izenduna	23.751 €
0900.481.18.335.10	ORIXE IKASTETXEA	Etorkinen euskalduntzea	7.917 €	Izenduna	23.751 €
0900.481.01.335.10	FAMILIAK	euskara ikasleak	55.000 €	Norgehiagoka	165.000 €
0900.481.19.335.10	GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELK.	Ahozko azalpena eta bertsolaritza	29.632 €	Izenduna	88.896 €
0900.481.21.335.10	GARABIDE ELKARTEA	Ohiko jarduera	4.000 €	Izenduna	12.000 €
0900.481.11.335.10	TOLOSA&CO	Erabilera lan munduan	7.300 €	Izenduna	21.900 €

Horiz markatutako aldaketak txertatu ondoren, honela uztea proposatzen da:

Dirulaguntza lerroa: 5.1.- Euskararen normalizazioa

Eskumen arloa	Euskara
Sektore hartzaileak	Ikastetxeak Enpresak eta tokiko merkatariak
Helburuak	Enpresetan euskara planak sustatzea; kaleko errotuluak euskaratzea; euskarazko komunikabideak sustatzea; ikastetxeekin elkarlanean bertsozaletasuna landu eta etorkinei euskalduntze prozesuan laguntzea; euskara ikasteko laguntzak ematea; hainbat jarduera sustatzea.
Lortu nahi diren ondorioak	Euskaraz dakiten herritarren kopurua areagotzea eta arlo sozioekonomikoan eta geinerako eremuetan euskararen erabilera sustatzea.
Egikaritze epea	Zehaztu gabe.
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantziarioa funts propioekin egiten da.
Ekontza Plana	Udal aurrekontua onartu ondoren, deialdi publiko bat egingo da norgehiagoka bidezko dirulaguntzen kasuan, eta bi alderdiek hitzarmen bat sinatuko dute dirulaguntza izendunetan. Aurreikusten da dirulaguntzaren zati bat (%75) aurreratzea eta Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatzea laguntza.
Jarraipena eta ebaluazioa	-Errotulu kopurua. -Ikasleen eskaera kopurua. -Enpresen euskara planak. -Hedabideen erabiltzaileak. -Elkarteen memoriak.



PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREK O PLANEAN AURREIKUSIA
0900.481.10.335.10	UZTARITZEKO LOUIS DASSANCE IKASTOLA	Euskara sustatzeko	3.000 €	Izenduna	9.000 €
0900.481.12.335.10	GALTZAUNDI	Normalizazioa	66.365 €	Izenduna	199.095 €
0900.481.01.335.10	ENPRESAK	Erabilera lan munduan	9.000 €	Norgehiagoka	27.000 €
0900.481.13.335.10	TKT (Ataria)	Euskarazko hedabideak, ohiko jarduera	95.190 €	Izenduna	285.570 €
0900.481.13.335.10	TKT (Ataria)	Urteurrena	5.000 €	Izenduna	5.000 €
0900.481.14.335.10	TK (28 kanala)	Euskarazko hedabideak, ohiko jarduera	39.692 €	Izenduna	119.076 €
0900.481.15.335.10	KONTSEILUA	Ohiko jarduera	5.000 €	Izenduna	15.000 €
0900.481.16.335.10	HERRIKIDE IKASTETX	Etorkinen euskalduntzea	7.917 €	Izenduna	23.751 €
0900.481.17.335.10	LASKORAIN IKASTOLA	Etorkinen euskalduntzea	7.917 €	Izenduna	23.751 €
0900.481.18.335.10	ORIXE IKASTETXEA	Etorkinen euskalduntzea	7,917 €	Izenduna	23.751 €
0900.481.01.335.10	FAMILIAK	euskara ikasleak	55.000 €	Norgehiagoka	165.000 €
0900.481.19.335.10	GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELK.	Ahozketasuna eta bertsolaritza	31.326 €	Izenduna	93.978 €
0900.481.21.335.10	GARABIDE ELKARTEA	Ohiko jarduera	4.000 €	Izenduna	12.000 €
0900.481.11.335.10	TOLOSA&CO	Erabilera lan munduan	7.300 €	Izenduna	21.900 €

Dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzearen justifikazioa oinarritzen da 38/2003 Legearen 8. artikuluan eta Lege hori garatzen duen Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 10. artikuluan eta ondorengoetan.

Arautegiaren arabera, dirulaguntza bat ezarri aurretik dagokion lerroa dirulaguntzen plan estrategikoan sartu behar da.

Indar arautzailerik ez duenez, nahikoa izango da aldaketa hau indarrean sartzeko erabakia hartzea eta aldaketaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketak onartzeko eskumena duen organoa Osoko Bilkura da, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak 6. artikuluan jasotzen duenaren arabera.



Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin dute, eta emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Kristina Pelaez Errazkin, Estitxu Kortejarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazabal, Josune Sanz Vidal, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Hau dela eta batzordeak

DIKTAMINATU DU

Lehen.-2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoko 5.1 lerroan aldaketak txertatu ondoren honela uztea:

Dirulaguntza lerroa: 5.1.- Euskararen normalizazioa

Eskumen arloa	Euskara
Sektore hartzaileak	Ikastetxeak Enpresak eta tokiko merkatariak
Helburuak	Enpresetan euskara planak sustatzea; kaleko errotuluak euskaratzea; euskarazko komunikabideak sustatzea; ikastetxeekin elkarlanean bertsozaletasuna landu eta etorkinei euskalduntze prozesuan laguntzea; euskara ikasteko laguntzak ematea; hainbat jarduera sustatzea.
Lortu nahi diren ondorioak	Euskaraz dakiten herritarren kopurua areagotzea eta arlo sozioekonomikoan eta geinerako eremuetan euskararen erabilera sustatzea.
Egikaritze epea	Zehaztu gabe.
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantziarioa funts propioekin egiten da.
Ekintza Plana	Udal aurrekontua onartu ondoren, deialdi publiko bat egingo da norgehiagoka bidezko dirulaguntzen kasuan, eta bi alderdiek hitzarmen bat sinatuko dute dirulaguntza izendunetan. Aurreikusten da dirulaguntzaren zati bat (%75) aurreratzea eta Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatzea laguntza.
Jarraipena eta ebaluazioa	-Errotulu kopurua. -Ikasleen eskaera kopurua. -Enpresen euskara planak. -Hedabideen erabiltzaileak. -Elkarteen memoriak.

ESKUB85a9801-3F72-4d8b-bfa3-b9ffb37bcc00



PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
0900.481.10.335.10	UZTARITZEKO LOUIS DASSANCE IKASTOLA	Euskara sustatzeko	3.000 €	Izenduna	9.000 €
0900.481.12.335.10	GALTZAUNDI	Normalizazioa	66.365 €	Izenduna	199.095 €
0900.481.01.335.10	ENPRESAK	Erabilera lan munduan	9.000 €	Norgehiagoka	27.000 €
0900.481.13.335.10	TKT (Ataria)	Euskarazko hedabideak, ohiko jarduera	95.190 €	Izenduna	285.570 €
0900.481.13.335.10	TKT (Ataria)	Urteurrena	5.000 €	Izenduna	5.000 €
0900.481.14.335.10	TK (28 kanala)	Euskarazko hedabideak, ohiko jarduera	39.692 €	Izenduna	119.076 €
0900.481.15.335.10	KONTSEILUA	Ohiko jarduera	5.000 €	Izenduna	15.000 €
0900.481.16.335.10	HERRIKIDE IKASTETX	Etorkinen euskalduntzea	7.917 €	Izenduna	23.751 €
0900.481.17.335.10	LASKORAIN IKASTOLA	Etorkinen euskalduntzea	7.917 €	Izenduna	23.751 €
0900.481.18.335.10	ORIXE IKASTETXEA	Etorkinen euskalduntzea	7,917 €	Izenduna	23.751 €
0900.481.01.335.10	FAMILIAK	euskara ikasleak	55.000 €	Norgehiagoka	165.000 €
0900.481.19.335.10	GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELK.	Ahozketasuna eta bertsolaritza	31.326 €	Izenduna	93.978 €
0900.481.21.335.10	GARABIDE ELKARTEA	Ohiko jarduera	4.000 €	Izenduna	12.000 €
0900.481.11.335.10	TOLOSA&CO	Erabilera lan munduan	7.300 €	Izenduna	21.900 €

Bigarrena.- Osoko Bilkuraren onarpenaren ondoren, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Xabier Balerdi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez hasierako onarpena eman dio 2023-2025 dirulaguntzen plan estrategikoaren aldaketari.

6. ONARTZEA ITXITAKO EKITALDIKO FAKTURAK.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2023ko irailaren 20ko irizpena

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 61.artikuluaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa, kontabilitate ekitaldia bat



dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Jarraian zehazten diren fakturek 2022 ekitaldiko faktura data dute eta 2023an jaso dira, ondorengo taulan ikusten den moduan:

HARRERA DATA	FRA. DATA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2023-06-21	2022-11-09	IBAI SARASUA GARCIA	15	Itzulpen zerbitzua. Tolosako herritarren batzarra	2.044,89
2023-06-21	2022-11-21	IBAI SARASUA GARCIA	17	Interpretazioa lanaldi erdia. Tolosako herritarren batzarra	544,50
2023-06-21	2022-12-31	IBAI SARASUA GARCIA	22	Aldibereko interpretazioa, lanaldi erdia. Tolosako herritarren batzarra	588,06

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 46.artikuluak xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharrei dagokienez. 2022ko abenduaren 31an aipatutako obligazioak onartu gabe zeuden eta 2023ko aurrekontutik onartuko dira. Beraz, faktura horiek onartzeko eskumena Plenoari dagokio.

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Kristina Pelaez Errazkin, Estitxu Kortejarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazabal, Josune Sanz Vidal, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Hau dela eta batzordeak

DIKTAMINATU DU

Itxitako ekitaldiko faktura hauek onartzea:

HARRERA DATA	FRA. DATA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2023-06-21	2022-11-09	IBAI SARASUA GARCIA	15	Itzulpen zerbitzua. Tolosako herritarren batzarra	2.044,89
2023-06-21	2022-11-21	IBAI SARASUA GARCIA	17	Interpretazioa lanaldi erdia. Tolosako herritarren batzarra	544,50
2023-06-21	2022-12-31	IBAI SARASUA GARCIA	22	Aldibereko interpretazioa, lanaldi erdia. Tolosako herritarren batzarra	588,06



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Xabier Balerdi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu ditu itxitako ekitaldiko fakturak.

7. ONARTZEA EUSKALTEGIKO PREZIO PUBLIKOAREN APLIKAZIO-ARAUAREN ALDAKETA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2023ko irailaren 20ko irizpena

1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Xedea: Euskaltegi prezio publikoaren aplikazio arauaren aldaketa
Espediente zenbakia: 2023ORFI0012

2.- AURREKARIAK

2023ko apirilaren 27an, Euskaltegioko prezio publikoen aplikazio arauen aldaketak onartu ziren.

2023ko uztailaren 31ean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (144ztkia) argitaratu zen C1C1 komunikagaitasun maila helburu duten ikastaroak egiteko C1C1 helburu maila eta abiapuntu maila jakin bat duten 16-18 urteko ikasleei dirulaguntzak emateko prozedura eta baldintzak. Deialdian parte hartzeko, Aitzol Euskaltegiak eta HABEk hitzarmen bat sinatu behar dute.

2023ko irailean, Habe eta Aitzol Euskaltegiak lankidetzeta hitzarmena sinatzeko asmoa dute. Hitzarmen honen arabera, HABEk Tolosako udalari ordainduko dio ikasleari dagokion prezio publikoaren zenbatekoa, baina hitzarmenean azaltzen diren epeetan. Epe hauek ez datoz bat Tolosako udaleko ordenantzetan azaltzen diren epeekin.



3.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Tasa eta Prezio Publikoei buruzko urtarrilaren 11ko 2/1990 Foru araeuan honakoa xedatzen da:

Prezio publikotzat hartuko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoaren eskumeneko zerbitzu prestazioak edo jarduera administratiboak egiteagatik ordaintzen diren diruzko kontraprestazioak, baldintza hauek betetzen direnean:

- *Zerbitzu edo jarduera horiek ez izatea administratuek nahitaez eskatu edo jaso beharrekoak.*
- *Zerbitzu edo jarduera horiek sektore pribatuak eman edo egitea.*

Prezio publikoak, gutxienez, jarduerak egin edo zerbitzuak ematearen kostu ekonomikoak estaltzeko adinakoak izango dira edo, bestela, zerbitzu edo jardueren erabilgarritasunaren maila baliokidea izango dute.

4.- ALDAKETA

Aipatutako hitzarmena sinatuz gero, euskaltegiko prezio publikoen ordenantzako (3.1.8 eranskina) aplikazio arauetan ordainketa epeak sartzeari diktaminatzen da:

“3.- ORDAINKETA EPEAK:

...

3.6. HABE eta Tolosako Aitzol Euskaltegiaren arteko lankidetzaren ondorioz, C1C1 helburu duten 16-18 urteko ikasleei dirulaguntzak emateko prozesuan, prezio publikoaren ordainketa epeak hauek dira:

- Matrikulazio epean: 20 euro (ikasleak ordainduko ditu)
- Gainerakoa: hitzarmenean azaltzen diren baldintzetan, beti ere ekainaren 30a baino lehen (HABEK ordainduko du)

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin dute, eta emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Kristina Pelaez Errazkin, Estitxu Kortejarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazabal, Josune Sanz Vidal, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Hori dela eta, Batzordeak



DIKTAMINATU DU

LEHENA.- Tolosako udaleko Euskaltegiko prezio publikoaren ordenantzaren (3.1.8 eranskina) aplikazio arauetan ondorengoa eranstea, beti ere hitzarmena sinatzen bada:

“3.- ORDAINKETA EPEAK:

...

3.6. HABE eta Tolosako Aitzol Euskaltegiaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren ondorioz, C1C1 helburu duten 16-18 urtek ikasleei dirulaguntzak emateko prozesuan, prezio publikoaren ordainketa epeak hauek dira:

- Matrikulazio epean: 20 euro (ikasleak ordainduko ditu)
- Gainerakoa: hitzarmenean azaltzen diren baldintzetan, beti ere ekainaren 30a baino lehen (HABEK ordainduko du)

BIGARRENA.- Prezio Publiko berri hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Xabier Balerdi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak, aho batez, onartu onartzea Euskaltegiko prezio publikoaren aplikazio-arauaren aldaketa.

8. HASIERAKO ONARPENA EMATEA 12/2023 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEARI, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2023ko irailaren 20ko irizpena

Hau da proposamena:



Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0900.481.13.335.10 2023	DIRULAGUNTZA EUSKARA. ATARIA	95.190,00	5.000,00	100.190,00
1 0900.481.19.335.10 2023	DIRULAGUNTZA EUSKARA. BERTSOZALE ELKARTE	29.632,00	1.694,00	31.326,00
1 0900.622.02.323.20 2023	ZERBITZUEN FUNTZIONAMENDURAKO ERAIKINAK.	145.000,00	170.000,00	315.000,00
1 0700.422.10.414.00 2023	EKARPENA LURRALDEKO BESTE ENTITATEEI.TOL	41.250,00	1.000,00	42.250,00
GUZTIRA		311.072,00	177.694,00	488.766,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2023	ALTXORTEGIKO GERAKINA	177.694,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			177.694,00

Kontuhartzaile akzidentalak egindako txostenean adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaien legeriarekin, zehazki, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Kristina Pelaez Errazkin, Estitxu Kortejarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazabal, Josune Sanz Vidal, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Hau dela eta batzordeak

DIKTAMINATU DU



Lehenengoa.- Hasierako onarpena ematea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 12/2023 espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatekoari, proposamenean ageri den partidakak xehetasunarekin, eta kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	7.694,00
6	INBERTSIO ERREALAK	170.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		177.694,00

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZAAKTIBOAK	177.694,00
GUZTIRA		177.694,00

Bigarrena.-Hasierako onarpenaren ondoren, espedientea jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko da. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Xabier Balerdi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, hasierako onarpena eman dio Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 12/2023 espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatean.



9. GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZARAKO TOLOSAKO UDALEKO ORDEZKARI TITULARRA ETA ORDEZKOA IZENDATZEA.

Lurraldea Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2023ko irailaren 20ko irizpena

2023-2027 agintaldirako Udal korporazioa berria eratu ondoren, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak hala eskatuta, beharrezkoa da Tolosako Udaleko ordezkari titular eta ordezko berriak izendatzea. Hala, Angel Martinez de Rituerto Arregui eta Aitor Agirresarobe Murgi ordezkari titular eta ordezko gisa izendatzea erabaki da; lehendik zeuden Patxi Amantegi Zubiria eta Xabier Balerdi Tolosa ordezkari titularraren eta ordezkoaren orde.

Tolosako udaleko Lurraldea Batzordeak, 2023ko irailaren 20an egindako bikuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Ander Figuerido Zubiria, Aitor Agirresarobe Murgi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitzol Garzia Azurmendi, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA: Angel Martinez de Rituerto Arregui eta Aitor Agirresarobe Murgi izendatzea Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan Tolosako Udaleko ordezkari titularra eta ordezkoa izateko.

BIGARRENA: Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritzari erabakiaren berri ematea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Xabier Balerdi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzarako Tolosako Udaleko ordezkari titularra eta ordezkoa izendatzea.



**10. BERDINTASUN KONTSEILURAKO UDAL-TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK
ETA HAIEN ORDEZKOAK IZENDATZEA.**

**Herritarrak Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2023ko irailaren 20ko
irizpena**

	Espedientea	2021IORD0001
Departamentua:	BERDINTASUN SAILA	
Gaia:	BERDINTASUN KONTSEILUAREN UDAL TALDE POLITIKOETAKO ZINEGOTZIAK ETA BERAIEIEN ORDEZKOAK IZENDATZEA	

Jendaurrean jartzeko epea amaituta eta epearen barruan aurkeztutako erreklamazioa ebatzi ondoren, Udalbatzak, 2021eko uztailaren 29an egindako Osoko Bilkuran, behin betiko onartu zuen Tolosako Udaleko Berdintasunaren Kontseilua arautzen duen Erregelamendua.

Erregelamendu honetako II. tituluko 5. artikuluan Kontseiluaren osaera jasotzen da. Eta 5.1. f. eta 5.2. artikulua bereziki horrela diote:

5.- artikulua. Kontseiluaren osaera.

5.1. Tolosako Udaleko Berdintasun Kontseiluan honako talde eta kolektibo hauek egongo dira ordezkaturak:

5.1.f.- Halaber, Kontseilu horretako kide izango dira alkatea eta Udalean ordezkariak duten talde politikoetako zinegotzi bana.

5.2.- Erakunde bakoitzeko ordezkari bat izendatuko da (titularra eta ordezkaria). Horretarako, izendapena egiaztatu beharko da lehendakariak edo idazkari teknikoak sinatutako agiri baten bidez.

Beraz, honako artikulua hauek kontuan hartuta, Udal talde politikoetako zinegotziak eta beraien ordezkariak honela izendatzea proposatzen da:

Kontseiluko lehendakaria: Goiuri Ezeiza Arandia (*)

EH Bildu Udal talde politikoa: - Ordezkaria: Garbiñe Marzol Ormazabal

- Ordezkaria: Kristina Pelaez Errazkin



EAJ-PNV Udal talde politikoa: Ordezkarria: Ainhoa Dominguez Landa
Ordezkoa: Leire Zubeldia Rezola

PSE-EE Udal Talde politikoa: Ordezkarria: Joxe M^a Villanueva Telleria

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Xabier Balerdi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu Berdintasun Kontseilurako udal-talde politikoen ordezkariak eta haien ordezekoak izendatzea.

11. ANDRAGORA, TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEAREN ERABILERA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEKO UDAL ERREGELAMENDUARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK EBAZTEA, ETA ERREGELAMENDUA BEHIN BETIKO ONARTZEA.

Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2023ko irailaren 20ko irizpena

AURREKARIAK:

Berdintasun Teknikariak txostena egin du. Bertan ondorengo azaltzen du:

“ Ez-ohiko Udalbatzak 2023ko maiatzaren 12an hartutako erabakiaren bidez, hasierako onarpena eman zitzaien ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen erabilera eta funtzionamendua arautzen duen udal erregelamenduari, eta Tolosako Udalaren webgunean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hogeita hamar laneguneko epea eman zen alegazioak aurkezteko, eta epe hori 2023ko ekainaren 8an hasi eta uztailearen 19an amaitu zen.

Epe horretan, uztailearen 14an, 9887 erregistro-zenbakiarekin, Onintza Lasa Arteagak, Silvana Ostiza Goikotxeak eta Ana Sanz Agirrek (NAN: 15987456H) 7 alegazio aurkeztu



zituzten erregistroan; horietatik 4 baietsi dira, 2 partzialki baietsi dira eta alegazio 1 ezetsi da.

Berdintasun sailak uztailaren 19an egindako bileran, aurkeztutako alegazio guztiak aztertu eta erantzun ditu: 7 alegazio aurkeztu dira; horietatik 4 baietsi dira, 2 partzialki baietsi dira eta alegazio 1 ezetsi da.

Honako alegazio hauei erantzuten zaie:

I. ALEGAZIOA

Lehenengo alegazio hori II. Kapitulutik (Printzipioak eta jarduera-ildoak) 4. artikulura (Printzipio gidariak) esaldi hau aldatzea proposatzen da: "Ekipamendu publiko-komunitarioa izango da, laikoa eta euskaraz zentratua".

Alegazio hori baiesten da, argudiaketa egokia delako: nahiz eta euskara printzipio gidarietako bat izan, ez du izango aurretik dituen beste printzipio gidariek baino zentraltasun handiagoa; nolana ere, feminismoa izango da ardatz bakarra.

Beraz, horrela jartzea proposatzen da

[Ekipamendu publiko-komunitarioa, laikoa eta euskalduna izango da.](#)

II ALEGAZIOA:

II. Kapituluko (Printzipioak eta jarduera-ildoak) 6. artikulua.- Ordutegia bigarren alegazioari dagokionez, esaldi hau aldatzea proposatzen da: "Dinamizazio Zerbitzua goizez eta arratsaldez emango da, eta ordutegia enpresa edo pertsona esleipendunarekin adostuko da". Horren ordez, "Dinamizazio Zerbitzua goizez eta arratsaldez emango da, erabaki-guneetan (Talde Eragilea eta Koordinazio-Gunea) adostutako ordutegian" esaldi hau jartzea proposatze da.

Alegazio hori partzialki baietsi da, uste delako koherentea dela ordutegia ANDRAGORAREN beharrei dagokienez ezartzea, baina, aldi berean, uste da ordutegia enpresa edo pertsona esleipendunarekin adostea Berdintasun sailaren barne-antolamenduarekin eta dinamizazio-zerbitzuarekin lotutako eginkizuna dela, eta ez dela Etxearen araudiarekin eta partaidetza-prozesuetan jasotakoarekin alderatzen.

Beraz, horrela jartzea proposatzen da:



Dinamizazio Zerbitzua goizez eta arratsaldez emango da, eta ordutegia enpresa edo pertsona esleipendunarekin adostuko da, ANDRAGORAREN beharrak kontuan izanda.

III. ALEGAZIOA

Hirugarren alegazioak III. Kapituluako (Espazioen deskribapena eta erabilera) 8. Artikulua.- Lokal nagusiaren deskribapena era erabilera (Emakumeon Plaza) aipatzen du, Tolosako Udaleko Berdintasun sailaren kokapenari dagokionez, eta honako esaldi hau aldatzea proposatzen du: "Hasiera batean, Berdintasun saila Lokal Nagusian instalatuko da, ANDRAGORAREN dinamika bere erritmoa hartu eta zerbitzua finkatu arte. Hori lortzen denean, Berdintasun Saila atzeko lokalean dagoen lehenengo solairura lekualdatuko da (Inpernu kalea 5 eta 7)".

Esaldi horren ordez, esaldi hau jartzea proposatzen da: "Berdintasun saila ANDRAGORAREN lokal nagusian instalatuko da. Urtero, etxeko erabaki-guneak (Talde Eragileak eta Koordinazio-Guneak) baloratuko dute ANDRAGORAREN dinamika eta zerbitzuko mantentzeko eta ziurtatzeko kokapen hori egokiena den edo hobe den Berdintasun Saila atzeko lokalera aldatzea. (Inpernu kalea 5, 7)".

Proposatzen duten aldaketa hori justifikatzen dute adieraziz, Berdintasun sailaren kokapenak hainbat fase eta planteamendu izan zituela argudiatuz, baita nolabaiteko eztabaida ere, baina ez zen konpondu. Justifikazioan baieztatzen dute egia dela hasiera batean Berdintasun saila aurreko eraikinaren sarreran kokatzea eta ondoren atzealdera eramatea planteatu zela. Baina ibilbidean, hasierako planteamendua aldatu egin zen, baina Talde Eragileak ez zuen atsegin handiz onartu eta zenbait aldaketa eskatu zituen, baina Berdintasun saila lehentasun bat izan behar zuen, eta aldaketak horren mende geratu ziren. Alegazioaren justifikazioa amaitzeko, adierazi du Talde Eragileko beste parte-hartzaile batzuek onartzen dutela berdintasun-teknikariek jada adierazi zutela atzeko eraikinera lekualdatzeko asmoa.

Alegazio hori ezetsi da. Obra Zuzendaritzaren memorian jasotzen den bezala, argi naturala irabazteko eta hasiera batean aurreproiektuan planteatutakoa baino espazio irekiagoa eratzeko, funtsezko aldaketa bat egin zen: emakumeen topagune-aretoa eskuinera lekualdatu zen, eta Berdintasun Saila behin-behinean ezkerrean kokatu zen.

Ondoren, eta Talde Eragileak proposatuta – oso egokitzat jo zen –, eremu bat gaitzea proposatu zen, Berdintasun saileko bulegoaren ondoan, arreta



intimoagoa behar zuten emakumeak hartzeko, obraren aurreproiektuan ere jasotzen ez zena. Baina espazioa bitan zatitzearen ondorioz, Berdintasun sailerako eremurako dagoen espazioa irekia da, eta ez du ate propiorik giltzaz itxi ahal izateko, eta hori ezinbestekoa da udal-ekipamendu batean.

Gainera, hasieratik eta partaidetza-prozesuetan zehar, Berdintasun teknikariak, behin eta berriz adierazi izan du, modu egokiagoan eta kontzentratuagoan lan egin ahal izateko espaziorik egokiena atzeko eraikinaren lehen solairua dela.

Beraz, horrela jartzea proposatzen da

Hasiera batean, Berdintasun saila Lokal Nagusian instalatuko da, ANDRAGORAREN dinamikak bere eritmoa hartu eta zerbitzua finkatu arte. Hori lortzen denean, Berdintasun Saila atzeko lokalean dagoen lehenengo solairura lekualdatuko da (Inpernu kalea 5 eta 7).

IV. ALEGAZIOA

III. Kapituluko (Espazioen deskribapena eta erabilera), 10.1.- artikulua.- Unean uneko jarduerak laugarren alegazioari dagokionez, esaldi hau aldatzea proposatzen da: “Era berean, jasoetako eskaera guztien berri emango die Dinamizazio Zerbitzuak berdintasun-teknikariei, bai onartutakoen, bai baztertutakoen berri”.

Alegazioa baiesten da; izan ere, jarduketa puntualetan zein jarraituetan, eskaerei buruzko informazioa, onartutakoak zein baztertutakoak, berdintasun-teknikariengana ez ezik, Talde Eragilera ere iritsi behar da, talde horrek balorazio zehatzagoa izan dezan, haiei ere baitagokie informazio hori izatea.

Beraz, horrela jartzea proposatzen da:

“Era berean, jasoetako eskaera guztien berri emango die Dinamizazio Zerbitzuak berdintasun-teknikariei eta Talde Eragileari, bai onartutakoen, bai baztertutakoen berri”.

V. ALEGAZIOA

III. Kapituluko (Espazioen deskribapena eta erabilera), 10.2.- artikulua.- Jarduera jarraituak bostgarren alegazioari dagokionez, esaldi hau aldatzea proposatzen da: “Zalantzarik,



gatazkarik edo gainjartzerik izanez gero, Dinamizazio Zerbitzuak, berdintasun-teknikariekin kontsultatuko du, eta elkarrekin hartuko dute baimena emateari buruzko erabakia”.

Era berean, jasotako eskaera guztien berri emango die Dinamizazio Zerbitzuak berdintasun-teknikariei, bai onartutakoen, bai baztertutakoen berri.

Alegazioa baiesten da, bidezkoa baita justifikatzea: jarduera puntualetan arinagoa da gainjartze edo gatazka bat ebatzea tekniken eta Dinamizazio Zerbitzuaren artean. Hala ere, jarduera jarraituetan komenigarriagoa da Talde Eragileak ere erabakitzea, jarduera luzeak direnez, etxean leku gehiago hartzen baitute. Hobe da mota horretako jarduerak kurtsoaren hasieran programatzea, kudeaketako talde guztiek onartuta.

Beraz, horrela jartzea proposatzen da:

Zalantzarik, gatazkarik edo gainjartzerik izanez gero, Dinamizazio Zerbitzuak, berdintasun-teknikariekin eta Talde Eragilearekin kontsultatuko du, eta elkarrekin hartuko dute baimena emateari buruzko erabakia.

VI. ALEGAZIOA

V. Kapituluko (Antolaketa eta kudeaketa), 12.2.artikulua.-- Talde Eragilea, 12.2.1.-artikulua (Osaera) eta 12.2.2 artikulua, seigarren alegazioari dagokionez, lekuz aldatzea proposatzen da.

Hau da:

12.2.- TALDE ERAGILEA

12.2.1.- Osaera

Funtzionaltasunari begira, gehienez 10 lagunek osatutako taldea izango da, eta ANDRAGORAREN aniztasuna islatuko du.

Konpromiso maila handiena hartzeko prest dauden emakumeek haien burua boluntario gisa aurkez dezakete Talde Eragileko partaide izateko, edo beste emakume batzuek proposatutakoak izan daitezke hautagaiak. Osaera adostasunez edo kontsentsuz zehaztea lehenetsiko da, zenbait irizpide kontuan hartuta; besteak beste, adina, udalerrria, eragile edota elkarte, eta jatorria. Beharrezkoa bada, bozketa egingo da eta bozka-kopuru gehien jasotzen dituzten emakumeak hautatuko dira. Berdintasun-teknikariak eta Dinamizazio Zerbitzuak ez dute bozketan parte hartuko.



Bi urteren buruan, ordezkari berriak hautatzeko aukera irekiko da eta Talde Eragilearen osaera aldatzea lehenetsiko da, nahiz eta ardura-aldaketa ahalik eta egokien egiteko beharrezkoa dela baloratzen bada, taldeko ordezkarien erdiek beste urtebetez jarraitzea eta taldeko ordezkarien erdiek aldatzea.

12.2.2.- Osaera

Hauek osatzen dute Talde Eragilea:

Elkarteko ordezkariak

Lantalde guztietako ordezkariak

Tolosaldeko talde feministetako eta aukera-berdintasuna helburu duten emakumeen elkarteetako ordezkariak, etxeari lotuta daudenak.

ANDRAGORAKo Dinamizazio Zerbitzua

Berdintasun-teknikaria

Proposatzen dute horrela jartzea:

12.2.- TALDE ERAGILEA

12.2.1.- Osaera

Hauek osatzen dute Talde Eragilea:

Elkarteko ordezkariak

Lantalde guztietako ordezkariak

Tolosaldeko talde feministetako eta aukera-berdintasuna helburu duten emakumeen elkarteetako ordezkariak, etxeari lotuta daudenak.

ANDRAGORAKo Dinamizazio Zerbitzua

Berdintasun-teknikaria

ESKUB85a9801-3F72-4d8b-bfa3-b9ffb37bcc00



12.2.2.- Kopurua eta hautaketa-prozesua

Funtzionaltasunari begira, gehienez 10 lagunek osatutako taldea izango da, eta ANDRAGORAREN aniztasuna islatuko du.

Konpromiso maila handiena hartzeko prest dauden emakumeek haien burua boluntario gisa aurkez dezakete Talde Eragileko partaide izateko, edo beste emakume batzuek proposatutakoak izan daitezke hautagaiak. Osaera adostasunez edo kontsentsuz zehaztea lehenetsiko da, zenbait irizpide kontuan hartuta; besteak beste, adina, udalerrria, eragile edota elkarte, eta jatorria. Beharrezkoa bada, bozketa egingo da eta bozka-kopuru gehien jasotzen dituzten emakumeak hautatuko dira. Berdintasun-teknikariak eta Dinamizazio Zerbitzuak ez dute bozketan parte hartuko.

Bi urteren buruan, ordezkari berriak hautatzeko aukera irekiko da eta Talde Eragilearen osaera aldatzea lehenetsiko da, nahiz eta ardura-aldaketa ahalik eta egokien egiteko beharrezkoa dela baloratzen bada, taldeko ordezkarien erdiek beste urtebetez jarraitzea eta taldeko ordezkarien erdiek aldatzea.

Alegazioa partzialki baiesten da. Alde batetik, paragrafoen ordenari dagokionez, argiagoa da eta logika osoa du Talde Eragilea osatzen duten pertsonen edo taldeen osaerarekin hasia, eta, bigarrenik, taldea eratze prozesua nolakoa izango den azaltzea. Baina, bestalde, 12.2.2 artikulua izenburua aldatzea proposatzen da, eta Kopurua eta hautaketa-prozesua jarri beharrean, Kopurua eta eratze-prozesua jartzea.

Beraz, horrela jartzea proposatzen da:

12.2.- TALDE ERAGILEA

12.2.1.- Osaera

Hauek osatzen dute Talde Eragilea:
Elkarteko ordezkariak

Lantalde guztietako ordezkariak

Tolosaldeko talde feministetako eta aukera-berdintasuna helburu duten emakumeen elkarteetako ordezkariak, etxeari lotuta daudenak.

ANDRAGORAKO Dinamizazio Zerbitzua



Berdintasun-teknikaria

12.2.2.- Kopurua eta eratze-prozesua

Funtzionaltasunari begira, gehienez 10 lagunek osatutako taldea izango da, eta ANDRAGORAREN aniztasuna islatuko du.

Konpromiso maila handiena hartzeko prest dauden emakumeek haien burua boluntario gisa aurkez dezakete Talde Eragileko partaide izateko, edo beste emakume batzuek proposatutakoak izan daitezke hautagaiak. Osaera adostasunez edo kontsentsuz zehaztea lehenetsiko da, zenbait irizpide kontuan hartuta; besteak beste, adina, udalerria, eragile edota elkarte, eta jatorria. Beharrezkoa bada, bozketa egingo da eta bozka-kopuru gehien jasotzen dituzten emakumeak hautatuko dira. Berdintasun-teknikariak eta Dinamizazio Zerbitzuak ez dute bozketan parte hartuko.

Bi urteren buruan, ordezkari berriak hautatzeko aukera irekiko da eta Talde Eragilearen osaera aldatzea lehenetsiko da, nahiz eta ardura-aldaketa ahalik eta egokien egiteko beharrezkoa dela baloratzen bada, taldeko ordezkarien erdiek beste urtebetez jarraitzea eta taldeko ordezkarien erdiek aldatzea

VII. ALEGAZIOA

Azken alegazioa dokumentu osorako da, eta Dinamizazio Zerbitzua terminoaren ordezkari Dinamizatzailea jartzea proposatu du. Terminoaren aldaketa hori justifikatzen da, argudiatuz dinamizatzailea pertsona erreferentea eta garrantzitsua dela Etxean, eta ezin dela "zerbitzu" gisa gauzatuta geratu, eta funtsezkoa dela dinamizatzaile terminoa erabiltzea hura humanizatzeko. Era bereran, gaineratu da, egin den aldaketa kontrataziorako formaltasun motaren baten ondorio bada, horrek ez duela zerikusirik ANDRAGORAREN barne-araudiarekin; izan ere, kontrataziorako baldintzak alda litezke, eta puntu honetan ez liokete inolako eraginik izango araudiari.

Hala ere, adierazi behar da Berdintasun Sailak dinamizatzaile terminoa erabiltzen zuela, eta Udaleko idazkariak esan zuela dinamizatzaile terminoaren ordezkari Dinamizazio Zerbitzua jarri behar zela.

Alegazio hori baietsi egin da, arrazoibidea egokia delako; izan ere, ulergarria izan daiteke kontratazio-agirietan Dinamizazio Zerbitzua terminoa erabiltzea, kontratatzen dena zerbitzu bat delako eta ez lanpostu bat betetzen duen pertsona bat delako nahasmena ez sortzeko.



BERDINTASUN SAILAK ERREGELAMENDUARI EGINDAKO ZUZENKETAK

Bestalde, Berdintasun Sailak zuzenketa batzuk sartu ditu erregelamendu honetan, eta alde z aurretik egiaztatu dira Talde Eragilekoak diren alegazio horiek egokitu eta egin dituzten emakumeekin. Zuzenketa horiek honako hauek dira:

1.- IV. Kapitulutik (Jarduerak eta Zerbitzuak), ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxean garatuko diren jardueren artean, hauek gehitzea proposatzen ditu:

M8, E28 eta A25 data historikoen kanpainetako ekitaldiak.

Tolosako Udaleko Jabetze Eskolatik eratorritako jarduerak eta espazioak.

Jatorri anitzeko emakumeentzako *Guretzako* gunearen ekimenak.

2.- V Kapitulutik (Antolaketa eta kudeaketa), 12. artikuluan, paragrafoa sartzea proposatzen du:

Berdintasun Saila fisikoki Emakumeen Etxean dagoenez, erabateko autonomia izango du bere eginkizunak betetzeko. Baterako kudeaketako organo batek ere ez du eskumenik izango Berdintasun Sailaren eginkizunen gainean, betiere funtzio horiek partaidetza-prozesuetan jasotakoa betetzen badute eta Berdintasun Arloaren funtzioak ez badira alderatzen etxeko funtzioekin eta araudiarekin.

3.- V. Kapitulutik (Antolaketa eta kudeaketa) emakume-talde horrek egindako seigarren alegazioarekin bat etorriz, 12.2.4 artikulua ere aldatzea proposatzen da eta horrela jartzea:

12.3.- KOORDINAZIO-GUNEA

12.3.1- Osaera

Hauek osatuko dute Koordinazio Gunea:

Berdintasuneko arduradun politikoek; guztira 4 ordezkari: bi Tolosako Udalaren partetik, eta beste bi Tolosaldeko udalen partetik (ahal dela, emakumeak izango dira).

Tolosako Udaleko berdintasun-teknikaria

ANDRAGORako Dinamizazio Zerbitzua



Elkarteko ordezkari bat (ahal dela, Talde Eragilean parte hartzen duena)

Lantaldeetako ordezkari bat (ahal dela, Talde Eragilean parte hartzen duena)

Tolosako Berdintasun Kontseiluko ordezkari bat, Kontseiluak berak izendatua (parekotasun ez-politikoaren berrantolaketarako behar da).

Tolosaldeko talde feministetako eta aukera-berdintasuna helburu duten emakume-elkarteetako ordezkari bat (ahal dela, Talde Eragilean parte hartzen duena).

Koordinazio Gunearen ordezkariak ANDRAGORArekin lotuta egon beharko dute.

12.3.2.- Kopurua eta eratze-prozesua

10 lagunek osatuko dute, eta beti ere ordezkari politikoaren eta lantaldeetako nahiz eragile eta elkarrekin emakumeen ordezkariaren berrantolaketarako behar da.

Koordinazio Gunearen parte hartzeko prest daudenek haien burua aurkez dezakete boluntario gisa, edota beste pertsona batzuek proposatuta aurkez daitezke hautagaiak. Osaera adostasunez edo kontsentsuz zehaztea lehenetsiko da eta, beharrezkoa bada, bozketan egingo da eta bozka-kopuru gehien jasotzen dituzten pertsonak hautatuko dira. Berdintasun-teknikariak eta Dinamizazio Zerbitzuak ez dute bozketan parte hartuko.

Hiru urteko epean, ordezkari berria hautatzeko aukera zabalduko da, eta lehentasuna emango zaio Koordinazio Gunearen osaera aldatzeko. Hala ere, aldaketa hori behar bezala egiteko beharrezkoa dela uste bada, dauden ordezkarietako batzuek lau urtez jarraitu ahal izango dute, gehienez ere. Ordezkariaren politikoaren kasuan, legegandian zehar aldatuko dira.”

Ondoren, Berdintasun Teknikariak behin betiko testua azaltzen du.

TXOSTEN JURIDIKOA:

1.- Oinarri Juridikoa eta Udalaren eskumena

Toki-Administrazioaren Arrazionalizazioa eta Iraunkortasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartu ondoren, aipatu Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eskuduntzen sistema aldatu egin zen. Zehazki, ondoko aldaketa hauek eragin zituen lege berriak:



- udal eskumenen sailkapena egin zituen: udalen eskumenen artean berezkoak, delegatuak, eta bestelakoak bereizi ditu lege berriak.
- udalen berezko eskumenen gaiak murriztu egin ditu.
- udalen eskumenen egikaritzea ekonomia eta finantza jasangarritasunaren irizpideen menpe jarri ditu.

Era honetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua 2. atalari idazketa berria eman zion Arrazionalizazio lege horrek, eta gaitzerrenda bat osatu zuen, non udalek berariazko eskumenak egikaritzeko baitzituzten. Gai horien artean, 25.2 a eta b apartaduak: "Udalerriak eskumen propio gisa baliatuko ditu beti, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legeriaren arabera, honako gai hauetan: "O) Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta genero-indarkeriaren aurkako jarduerak."

Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien eskumen propioak arautzen ditu eta horiek zein esparru materialetan erabili ahal izango dituzten eskumen propioak zehazten ditu; Bere 27 atalean horrela dio: "Genero Berdintasunaren eta ekitatea sustatzearen arloko politikak antolatzea eta kudeatzea."

Bestalde, Ordenantza ondorengo arautegian dago oinarrituta:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarenez aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legea.

Bere Laugarren artikulua da aplikagarria eta batez ere bere 13. artikulua. Honela dio:

*Euskal botere publikoek, politika publikoak garatzerakoan, talde feministen eta emakume taldeen, gizarte-eragileen eta, oro har, herritar guztien partaidetza eta elkarrizketa bultzatu behar dute; hala, beste partaidetza-eredu bat faboratuko da, demokratikoagoa, taldeen ekarpenei legezketasun handiagoa emango diena eta haien ekarpenek benetako eragina izatea erraztuko duena. Horretarako, **parte hartzeko gune eta bitarteko egokiak sortuko edo egokituko dira, irisgarritasun unibertsala bermatuko dutenak.***

Bestalde, kontuan hartuz udal eraikuntza erabiliko dela, ondasunen erabilera arautzen duen ondorengo arautegia ere kontutan hartuko da:



-Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legeak, bere 72.artikulan: "Toki-korporazioek elkartean garapena bultzatzen dute, auzotarren interes orokorrak edo sektorialak defendatzeko, beren jardueri buruzko informazio zabalena ematen diete, eta, ahal duten neurrian, baliabide publikoak erabiltzen eta jarduerak egiteko dirulaguntzak eskuratzen laguntzen diete, eta korporazioaren kudeaketan parte hartzea bultzatuko dute, 69. artikuluko 2. zenbakiaren arabera".

-Bestalde, antzera dio Toki-erakundearen Araubidea eta Funtzionamendua Antolatzearen Erregelamendua, bere 233.artikulan: "Las asociaciones a las que se refiere el artículo anterior podrán acceder al uso de medios públicos municipales, especialmente locales...."

Beraz, Teknikari honen iritziz, Tolosako udalak badu ahalmena proposatzen den Ordenantza arautzailea onartu eta aplikatzeko, aipatu diren xedapenetan oinarritzen delako.

Erabilera mota eta ahalbideraketa, ondorengo arautegian dago xedatuta:

-Toki Entitateen Ondasunen Araudiko 1 eta 6 arteko artikulua honela diote:

1.artikulua: ondasunen kontzeptua eta sailkapena :

1. Toki-erakundearen ondarea beren ondasun, eskubide eta akzio guztiek osatuko dute.
2. Toki-erakundearen ondasunen araubidea honako hauek arautuko dute:
 - a) Estatuak toki-araubidearen arloan duen oinarritzko legeriak.
 - b) Administrazio publikoen ondasunen araubide juridikoa arautzen duen Estatuaren oinarritzko legeriak.
 - c) Autonomia-erkidegoek beren eskumenen esparruan emandako legeak.
 - d) Aurreko paragrafoetan aipatutako legeriarik ez badago, toki-araubidearen eta ondasun publikoen arloan oinarritzko ez den Estatuaren legeriak.
 - e) Erakunde bakoitzaren ordenantzak.
 - f) Ordezko gisa, ordenamendu juridiko, administratibo eta zibileko gainerako arauak.

3. Nolanahi ere, Estatuaren zuzenbidea aplikatuko da, Konstituzioaren 149.3 artikulua arabera.

2.artikulua:

1. Toki-erakundearen ondasunak honela sailkatuko dira: jabari publikoko ondasunak eta ondare-ondasunak.
2. Jabari publikoko ondasunak erabilera edo zerbitzu publikokoak izango dira.



3. Herri-ondasuntzat joko dira, herri-jabariakoak izanik, ondasun horien aprobetxamendua auzotarren erkideari badagokio.

4. Herri-ondasunak udalerrienak eta toki-erakunde txikienak baino ezin izango dira izan.

3.Artikulua:

1. Tokiko erabilera publikoko ondasunak dira bideak, plazak, kaleak, pasealekuak, parkeak, iturri eta urmaeletako urak, zubiak eta aprobetxamendu edo erabilera orokorreko gainerako herri-lanak, baldin eta horien kontserbazioa eta polizia toki-erakundearen eskumenekoak badira.

2. Lurzoruak planak onartzen direnetik hirigintza-xedearekin duen loturari kalterik egin gabe, hirigintza-legeriaren arabera administrazio jarduleari eskubidea lagatzen zaion unean lotuko zaizkio higiezinak erabilera publikoari.

4.artikulua:

Zerbitzu publikoko ondasunak dira toki-erakundearen erantzukizuneko helburu publikoak betetzera zuzenean bideratutakoak, hala nola udaletxeak, probintzia-jauregiak eta, oro har, horietako eraikinak, hiltegiak, merkatuak, lonjak, ospitaleak, museoak, mendi katalogatuak, eskolak, hilerriak, garraio-elementuak, igerilekuak eta kirol-zelaiak, eta, oro har, zuzenean zerbitzu publiko edo administratiboak ematera bideratutako beste edozein ondasun.

5.artikulua:

Herri-ondasunak eta jabari publikoko gainerako ondasunak besterenezinak, enbargaezinak eta preskribaezinak dira, eta ez dute inolako zergarik.

6.artikulua:

1. Ondare-ondasunak edo norberaren ondasunak dira, toki-erakundearen jabetzakoak izanik, erabilera publikorako ez direnak edo zerbitzu publikoren bati atxikita ez daudenak eta erakundearen altxorrerako diru-iturri izan daitezkeenak.

2. Ondare-ondasunek berariazko legeria dute, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

-Toki Entitateen Ondasunen Araudiko 75. artikulua honako erabilera motak bereizten ditu, herri jabariari dagokionean:

- Jabari publikoko ondasunak erabiltzean, honako hauek hartuko dira kontuan:

1. Erabilera erkidea, herritar guztiei berdin dagokiena, batzuen erabilerak ez dezan eragotzi gainerako interesdunen erabilera, eta aintzat hartuko da:



a) Orokorra, inguruabar berezirik ez dagoenean. b) Berezia, baldin eta izaera horretako inguruabarrak badaude arriskugarritasunagatik, erabileraren intentsitateagatik edo antzeko beste edozeinengatik.

2. Erabilera pribatiboa, jabari publikoaren zati bat okupatzeak osatzen duena, gainerako interesdunek erabilera mugatu edo bazter dezaten.

3. Erabilera arrunta, eragiten dion jabari publikoaren erabilera nagusiarekin bat datorrena.

4. Erabilera anormala, helburu horrekin bat ez badator.

-Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92ak honela dio:

1.- Eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei zuzenean emango zaizkie baimenak, salbu eta, edozein arrazoirengatik, eskatzaile horien kopurua mugatuta badago. Kasu horretan, lehia-erregimenean emango dira baimenak, eta hori bidezkoa ez bada, eskatzaileek baldintza berezirik baloratu behar ez dutelako, zozketa bidez, baldin eta beste zerbait ezarri ez bada baldintza horietan.

2. Baimenak ez dira eskualdatuko, baldin eta baimen-emate horretarako baimenduaren inguruabar pertsonalak kontuan hartu behar badira edo baimen-kopurua mugatuta badago, salbu eta baimen horiek arautzen dituzten baldintzek eskualdatzea onartzen badute.

3. Baimenak aldi jakin baterako eman beharko dira. Gehienezko iraupena, luzapenak barne, lau urtekoa izango da.

4. Administrazio emakidatzaileak edozein unetan ezeztatu ahal izango ditu baimenak, interes publikoko arrazoiak direla medio, kalte-ordainerako eskubiderik sortu gabe, baldin eta ondoren onartutako baldintza orokorrekin bateraezinak badira, jabari publikoan kalteak eragiten badituzte, interes publiko handiagoko jardueretarako erabiltzea eragozten badute edo erabilera orokorra kaltetzen badute.

5. Baimenak doakoak izan ahal izango dira, kontraprestazio edo baldintzekin eman ahal izango dira, edo Estatuko jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik tasaren mende egon ahal izango dira – tasa hori Estatuko eta Tokiko Tasen eta Ondare Prestazio Publikoen Lege Araubidea aldatzeko eta horiek



berrantolatzeko uztailaren 13ko 25/1998 Legearen I. tituluko VIII. kapituluaren araututa dago –, edo haien arau berezietan aurreikusitako tasen mende.

